

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LANTARONGO UDALA

#### Jarduera sailkatuaren baimen eskaera

Tuberias y Perfiles Plásticos SAUk udal lizentzia eskatu du Lantarongo industrialdeko Ome-cillo ibaiaren kaleko 1. zenbakian dagoen 35-8-23 katastro erreferentzia duen lurzatian hoditeria fabrikatzeko (Pex sekzioa).

Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak 58.2 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eta erantsitako proiektuaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da, jarduera horrek kalteren bat dakarkiola uste duen orok instalazioarekin zerikusia duten agiriak, udal bulegoetan daudenak, azter ditzan jendea atenditzeko orduetan, eta egoki jotako erreklamazioak edo oharrak aurkez ditzan, behar bezala egiaztatuta. Horretarako, hamabost egun balioduneko epea izango da, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

Komunioi, 2021eko urriaren 7a

*Alkatea*

*JAVIER URIARTE JAIRO*